

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Orioko Udala. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea.
2. Sektorea:	Erakunde publikoa. Udala
3. Langile kopurua:	83 inguru
4. Webgunea:	www.orio.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Administrazio publikoa

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Jabier Zabaleta (Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikaria)
Helbide elektronikoa:	euskara@orio.eus
Telefonoa:	943 830 346 → Luzapena: 8

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Udal-webgune euskalduna + itzulpen automatikoa
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Udalak euskara hutsez sortu eta eguneratzen du orio.eus udal-webgunea, osotasunean, eta hala eskaintzen zaio herritarrari. Webguneak Elhuyarren Elia itzultzaile automatikoa baliatzen du euskaraz sortutako testuak bost hizkuntza hauetara itzultzeko: gaztelania, ingelesa, frantsesa, katalana eta galegoa. Itzulpena automatikoa da eta, beraz, ez da perfektua, baina tresna bikaina da euskaraz oraindik ez dakienak Udalaren berri jakin dezan.</p> <p>Udalari aukera ematen dio bere edukiak guztiz euskaraz lantzeko, itzulpenaren karga makinaren gain utzita.</p> <p>Orioko Udalaren webgunea: https://orio.eus</p> <p>Onura nagusiak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Kalitate oneko itzulpenak egiten dira.- Itzultzaileak automatikoki egiten du itzulpena.- Langileak itzulpen lanetatik libre geratzen dira.- Euskaraz sortzen dira webgunearen eduki guztiak.- Konponbide eleanitza ematen diogu.- Erabiltzaileek modu intuitiboan ikasten dute itzulpena nola egin.- Itzultzailea hobetu egiten da erabileraren ondorioz.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...



Moilako galiboa lau metroko altueran jarri du udal-brigadak

➔ Albisteak / Uztailak 05, 2022

San Pedro jaiak amaituta, txurrosaltzailearen kamioiak moilako galiboa bota zuen herritik irtetera zihoanean, larunbatetik igandera bitarteko gauean. Ondorioz, igandean eta astelehenean, ezin